

LEGATZ FRESKUA.

Melchor Lukainkategik
 bapo jan nayian
 afaltzen ari zala
 ostatu batian,
 neskacharekiñ izan
 zituben itz abek:
 —Aizazu ¿zenbat egun
 ditu legatz onek?
 —¿Zenbat egun dituben?
 ez dakit, zergatik
 ez daramat nik emen
 aste bat besterik.

¡KONTU ONA!

—Orra bada, Mariyak
 lau urte geiago
 izango ditu ta da
 ni baño zarrago.
 —Ezetz andre Jasinta,
 —Bai andre Kataliñ,
 irurogei ta labak
 baditu berekiñ.
 Eta nik obetago
 dakit ala dala
 ¿nolatan ez, jayotzen
 ikusi nuben ta?

MARZELINO SOROA.